

## Zer da Love-Orain?

Love-Orain euskarazko on-line aplikazio bat da, non Euskal Herriko gazteei bikotekidea aurkitzeko aukera eskaintzen zaien. Izan ere, COVID-19a dela eta, jende berria ezagutzeko traba gehien jasan izan duen giza taldea da honakoa. Ondorioz, baztertuak sentitu diren hauei plan bereziak eta esperientzia berriak eskaini nahi dizkiegu.

Zerbitzu hau bi adin tartekoen artean banatu dugu. Alde batetik, 18-30 urte bitarteko gazteei zuzenduko diegu zerbitzua. Bestetik, 16-22 urte bitartekoei. Hala ere, azken honetako tarte honetan adingabekoak ere sartzen direnez, kontrola handiagoa izango da. Hori bermatzeko, adingabeko batek bere datuak; konkretuki, adina, aplikazioan sartzean 22 urte baino gehiagoko profilak desagertuko zaizkio. Hain zuzen ere, 22 urte dira askok unibertsitateko gradua bukatzen duten adina eta, gazteriaren joerak ikusirik, bikotea osatzerakoan ikasketak bukatu dituzten pertsonekin ez dira elkartzen.

Aplikazioaren erabilerari so eginik, behin beraien datuak sartuta dituztela beste erabiltzaileen profilak agertuko zaizkie. Beraien gustukoa den bat aurkitzerakoan, txat bitartez mezu bat bidali eta elkar mezuak trukatzeko hasiko dira (biek nahi duten kasuan). Ondoren, bideo-deia egiteko aukera izango dute, elkar hobeto ezagutzeko. Azkenik, benetan elkar fisikoki ezagutu nahi badute beraien kabuz tokiren batean elkartzeko libre dira.

Beste Euskal Herriko on-line zita enpresaz ezberdintzen gaituen ezaugarriak ere baditugu. Adibidez, %20eko deskontua izango dute erabiltzaileek zita egiteko jarduera batzuetan. Era berean, publizitate kanpaina sendoa egin nahi dugunez, influenzerren laguntza ere izango dugu. Beste pizgarri batzuk ere eskainiko ditugu; tartean, lehiaketa bat, dohako afariak...